



GURASO BILERA

LH 3

2025- 2026 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA
2. METODOLOGIA
3. JANGELA EREDUA
4. ARLOAK ETA IKAS-MATERIALA
5. LAN-AZTURAK. GURASOEKIN ELKARLANEAN
6. HELBURUAK ARLOZ ARLO
7. ZENBAIT OHAR
8. OSASUN ARRETA
9. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK
 - a. Euskararen egunean Txokolatada (abendua)
10. ERANSKINAK
 - a. Ordutegia
 - b. Jangelako dekalogo

1. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA

TUTOREAK:

3.A ITSASO IZAGIRRE ijzagirre@zurriolaikastola.eus

3.B UXOA IRIGOIEN uirigoien@zurriolaikastola.eus

3.C NEKANE ARAMBILET narambilet@zurriolaikastola.eus

Ingelesa: IDOIA URIBE iuribe@zurriolaikastola.eus

Musika: OLATZ OAR ooar@zurriolaikastola.eus

Heziketa fisikoa: UXUE LOPEZ ulopez@zurriolaikastola.eus / ANDER GOÑI
agoni@zurriolaikastola.eus

Aholkularia: EIDER BERAZA aholkularia@zurriolaikastola.eus

P.T.-a: JON BADIOLA jbadiola@zurriolaikastola.eus

LH-ko etapa burua: PAULA GONZALEZ etapaburualh@zurriolaikastola.eus

Ikasturtean zehar guraso bilera orokor bat egingo dugu. Horretan ikasturteko helburuak, metodologia eta eguneroko dinamikaz arituko gara.

Urtean idatzizko 3 ebaluazio-txosten helaraziko zaizkizue. Bakarkako 2 elkarrizketa egingo ditugu gurasoekin ebaluazio-txostenen gaineko azalpenak emateko eta ikaslearen garapenari buruzko informazioa trukatzeko. Biler horietaz gain, behar adina aldiz elkartzeko gara zuekin, egoerak hala eskatuz gero.

Tutorearekin harremanetan jarri edo mezu bat helarazi nahi izanez gero, bere e-postara mezu bat bidali eta ahalik eta azkarren emango zaio erantzuna.

Momentuan jaso beharreko mezua balitz, Ikastolako idazkaritzara deitu. Ikasleen bidez oharrik bidaliz gero, hauek idatziz egin beharko dira.

Hortaz gain, gogorarazten dizuegu urtean zehar Ikastolak gurasoekin izango duen komunikazio bide nagusia ostiraletan bidaltzen den **ATARIA** astekari digitala dela. Bertan, aurreko astean izandako ekintza nagusien berri emateaz gain, hurrengo egunetan izango diren gertakariak eta bestelako ohar garrantzitsuak agertzen dira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da behar besteko arreta ematea asteroko komunikabide honi. Informazio hori guztiari Ikastolako webgunea gaineratu behar zaio.

Atariarekin inolako arazorik izanez gero, idatzi alexiazalantzak@zurriolaikastola.eus helbidera. Zuen datu pertsonaletan aldaketarik izanez gero, idatzi ezazue idazkaritzara: idazkaritza@zurriolaikastola.eus

2. METODOLOGIA

Ikastolan haurrentzat proposatzen ditugun espazio, material, jarduera eta denboraren antolaketak haurren ongizatean eta garapenean eragin zuzena dute. Honek, gure antolaketa zein espazioen etengabeko azterketa egitera behartzen gaitu, haurren garapen osoan (psikomotorean, afektiboan, sozialean zein kognitiboan) eragina baitu.

GELA ETA SAIOEN ANTOLAKETA

Talde osoarekin batera hainbat jarduera egiten ditugu. Hurrei harrera egin, eguna agurtu, azalpen orokor bat eman, ipuin kontaketa eta bestelako ekintzetarako erabiliko dugu antolaketa mota hau gehienbat.

Ikasleen autonomia lantzen jarraitzeko helburuarekin, iaz bezala eginbehar edo jarduera desberdinak dituen zerrenda bat azalduko diegu. Hurrek ahalmena izango dute, jarduera horiek noiz eta norekin egin behar dituzten erabakitzeko, beti ere, espazioak berak eta kideen arteko harremanek berez jartzen dituzten mugak kontuan hartuta. Jarduera horiek ikasleen ahalmen desberdinetara errazago egokitu ahal izango dira, bakoitzaren erritmoa errespetatuz.

Matematika, irakurketa/idazketa, gaztelania eta ingurune konpetentzia disziplinarrak lantzeko jarduera desberdinak egongo dira bereziki zerrenda horretan. Bestalde, modu honetara lan eginez, ikasleek bestelako oinarritzko konpetentzien hainbat alor garatzeko aukera izango dute; hots, ardura, autonomia, frustrazioaren kudeaketa, eta abar.

ERREFORTZU SAIOAK

Ikas-prozesuan ager daitezkeen zailtasunei aurre egiteko laguntza gehigarria eskaintzen dugu. Tutoreak zuzenduta izaten dira saio hauek eta ikasle talde txiki bati zuzenduta egoten dira.

Errefortzuak ordur barne izango dira, eta hauetan bigarren irakasle bat sartuko da gelan. Ikasleren bat errefortzuan hartuko bada familiei adieraziko zaizue.

3. JANGELA EREDUA

Jangelako orduetan, bazkaltzeaz gain, beste balore eta helburu batzuk lantzen ere saiatzen gara. Bazkaltzea ez da helburu bakarra. Eremu honetan hainbat alor lantzeko aukera dago: ardura, autonomia, motrizitatea, garapen emozionala, ingurunearekiko sentiberatasuna,

mahaian eduki beharreko ohitura egokiak... Ikasleei protagonismoa ematea bilatzen du, jangelako tarte horretan beraien parte-hartzea areagotuz.

Ategorrietako ezaugarriek eta antolaketak ikasleek bazkaltzeko duten denbora luzatzea baimentzen du, eta adinaren arabera ikasleek mahaia jarri, mahaia jaso, aulkiak bildu, ingurua txukundu... egingo dute. Aurrera begira asmoak urrutirago garamatzate, baina, oraingoz, ardura txikiak hartzen hasiko gara. Ikasleak mahai borobiletan eseriko dira, eta beraietako bat arduraduna izango da. Ikasleekin geletan landuko den dekalogoia eranskinean duzue.

4. ARLOAK ETA IKAS-MATERIALA

• INGURUNEA (NATUR ZIENTZIAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK)

Hainbat gai erabiliko ditugu abiapuntu bezala arlo honetako helburuak lortzeko. Ikasleen interesen arabera jardura desberdinak landuko ditugu, beti ere, lortu beharreko oinarritzko kompetentziak, zein kompetentzia diziplinarrak helburu izanik.

Txoko Zuria izango dugu. Txoko honek gaiekin lotura zuzena izango du eta ikasleek etxetik ekarritako material desberdinarekin hornituko da (liburuak, jostailuak, panpinak, argazkiak...).

• EUSKARA

AHOZKOTASUNA komunikazioaren oinarria izanik etengabe lantzen jarraituko dugu.

IDAZKETArako ikasleen interes, erritmo eta gaitasunetara egokitzen den materiala erabiliko dugu. Modu honetara, adin honetan garatu behar duten idatzizko-komunikazioaren kompetentzia modu motibatzaile eta eraginkor batean landu eta hizkuntza idatziarekin harremana sendotzen joateko guneak izango ditugu.

IRAKURKETAK duen garrantzia kontutan izanik, atal hau ikastolan ez ezik etxean ere lantzea oso garrantzitsua da, eta egunero 10-15 minutu irakurtzea komeni da. Horretarako, gurasoen partaidetza beharrezkoa da: animatuz, elkarrekin irakurritz... laz bezala liburu maileguarekin jarraituko dugu. Aurten, euskarazko bi liburuei gaztelaniazko bat gehitu diogu.

• MATEMATIKA

Ikasleen interesguneak abiapuntutzat hartuta eta material erakargarria eta motibatzailea erabiliz, behatu, ikertu, esperimentatu, manipulatu, hipotesiak egin, bide ezberdinak probatu, estrategiak pentsatu, eztabaidatu eta egindako prozesua zein lortutako emaitza ahoz eta hizkuntza matematikoan adierazten ikasiko dute. Ikasle bakoitzaren garapenerako proposa den eskaintza mailakatua egingo da.

PENTSAMENDU LOGIKO eta PROBLEMEN EBAZPENARI dagokion garrantzia emango diegu.

BURUZKO KALKULUA eta BIDERKETA TAULAK ere ezingo ditugu ahaztu.

Erabiliko dugun ilkasmateriala: Manipulatzeko material ezberdinak eta irakasle taldeak sortutako jarduera-sorta.

IKT-en erabilerari aurten ere eskainiko diogu tarte. Matematika lantzeko hainbat jolas eta jarduera egingo dituzte ordenagailuan.

• GAZTELANIA

3.mailan gaztelaniak pisu handiagoa izango du. Astean bi saio izango dituzte eta gainerako arloetan bezala markatutako helburuak ebaluazio-txostenean ebaluatuko ditugu. Ahozkotasunari garrantzia handia ematen jarraitzeaz gain, ikasturte honetan, idazketan euskara eta gaztelania arteko aldaketa fonologiko eta grafikoetan indarra jarriko dugu bereziki.

• INGELESA

Aurten ere Ikastolen Elkartek sortutako material berria erabiliko dugu: Buddy. Ikaslearen liburua, 5 irakurgai eta web gune bat osatzen dute metodoa. Irakurgaiak maileguan erabiliko ditugu. Buddyren web orriarekin lan egiteak eskaintzen dizkigun abantailak gogorarazi nahi genituzke:

1. Kalitatezko material didaktikoetarako sarbidea.
2. Entzute aktiboaren bidez ahoskera hobetzea.
3. Ikaskuntza pertsonalizatua.
4. Motibazioa eta dibertsioa.

Tresna hau zuen seme-alabekin batera aztertzeraz animatzen zaituztegu, ziur baikaude ingelesa ikasten lagunduko duela. Webgunera sartzeko edo webgunea erabiltzeko moduari buruzko zalantzarik baduzue, jar zaitezte gurekin harremanetan.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

• ARTE HEZKUNTZA (MUSIKA ETA PLASTIKA) ETA ANTZERKIA

Astean bi orduz musika-plastika-antzerkia lantzeko tailerrak izango dituzte. Ikaslea tailer guztietatik pasako da hiruhilekoan zehar.

Ikasleak irudien, marrazkien, musikaren eta beste adierazpen ugariaren sortzaile, erabiltzaile eta hartzaile izaten dira. Jolasaren bidez sortze prozesuan teknika ezberdinak ezagutuko dituzte eta musika eta arte plastikoekin esperimentatuko dute, nork bere burua ekimenez,

irudimenez eta sormenez adierazteko. Musikan mugimendua, ahotsa, erritmoa, eta instrumentazioaren hastapenak landuko dira nagusiki. Euskal kulturaren eta euskal-ohituren transmisio-unea ere izango da.

Antzerkia tresna bezala erabiliz, emozioak, auto-kontzeptua, hizkuntza adierazpena eta gorputz adierazpena landuko dira bereziki. Bestalde, antzerki-lan batean parte hartzen duten eragile desberdinen rola poliki-poliki landuko diren arren, helburua ez da izango antzerki-lan baten erakustaldia.

● HEZIKETA FISIKOA

Adin honetako haurrek mugimendua ezinbestekoa dute. Mugimendua osasunarekin lotzeaz gain, norberaren gorputzaren gaitasun motorrak ezagutzea eta jolasaren bidez horiek garatzea da gure helburu nagusia. Horreratako ekintza ezberdinak proposatuko ditugu: bakarkakoak, bat baten aurkakoak, elkarlanekoak, elkarlaneko-aurkakotasunekoak, ziurgabetasunekoak eta adierazpenekoak. Horiek guztietan arauen betetzeaz gain partehartzea ere sustatuko da. Saiok burutzeko material ezberdinak erabiliko ditugu.

Gorputz Hezkuntza burutzen den egunetan arropa egokia ekarri behar dute. Egunen batean saioa burutzeko ezintasunen bat edukiz gero, idatzizko oharra bidali beharko da.

● TUTORETZA

Bizikidetzaren esparruan, ikaslearen gertukoak diren testuinguruetan (familia, ikastola, auzoa) sortzen diren egoeren kudeaketarako erramintak eta estrategiak lantzen dira, Bestalde, besteekiko errespetuzko jokabideak sustatzen dira, berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko elkarbizitza helburu izanik. Balio horiek barneratzeko eta lantzeko jarduera ezberdinak burutuko ditugu.

5. LAN-AZTURAK. GURASOekin ELKARLANEAN

Ikasleek lan-aztura egokiak garatu ditzaten, Ikastolan egiten dugun lanketaz gain, ezinbestekoa da gurasoen inplikazioa.

Lanerako garaian aztura hauetan jarriko dugu arreta berezia:

- Autonomia
- Lagunei laguntzeko prest egotea
- Besteen lanak baloratzea
- Adi egotea
- Lanak garaiz hasi eta bukatzea
- Postura egokian lan egitea
- Txukuntasuna

- Materiala zaintzea
- ...

Etxean ere, behaketa lanak, materiala ekartzea, datuak biltzea, irakurtzea eta antzekoak eskatuko dizkiegu. Horretarako, zuen partaidetza ezinbestekoa izango da.

Orain arte landutako azturekin jarraitzeaz gain, ikasturte honetan ardura berriak barneratu behako dituzte, zuen laguntza eskatuko dutenak:

- **ASTE EGITARAUA:** LH3.mailako ikasleentzat baliabide berria da, eta beraien eginbeharrak hobeto antolatzeke oso tresna baliagarria da. Ikasleek material hau behar den bezala erabiltzen ikasten duten bitartean, gurasoek jarraipena egitea oso garrantzitsua da. Erabilera anitzak eduki ditzake: irakasle eta gurasoen arteko komunikazio tresna modura, etxetik ekarri beharreko jolas, ipuin edota bestelakoak apuntatzeko, etxerako lan puntualak gogorarazteko...
- **MATERIALAREN ANTOLAKETA:**
 - **MOTXILA** etxera eramaten dutenean, ongi antolatuta eta txukun dagoela ziurtatzeko jarraipena egitea garrantzitsua da.

6. HELBURUAK ARLOZ ARLO

Hiruhileko bakoitzaren amaieran ebaluazio txosten bat jasoko duzue gurasoek posta elektronikoko bidez. Bertan, ikasleek arlo bakoitzean lortutako helburu didaktikoak adieraziko dira, eta hauen lorpen maila. Zenbait kasutan, bestelako xehetasunak ere adieraziko dira, helburua lortu ez bada, noraino iritsi den, adibidez.

Txosten honekin batera jangelako erabiltzaileen gurasoek informe bat ere jasoko duzue. Jarraian dituzue arloz arlo hiruhileko bakoitzean lortu beharreko helburu didaktikoak.

NORBERA IZAN ETA ELKARREKINTZA

- Gelan nahiz atarian euskaraz aritzea.
- Ikasketa prozesuan autonomiaz jokatzeko.
- Bere eguneroko jardunean arrazoitze gaitasuna erakustea.
- Landutako ezagutzak egoera ezberdinetan eraginkortasunez aplikatzea.
- Hainbat iturrietatik informazioa jasotzea, hautatzea eta erabiltzea.
- Taldearen aurrean eroso sentitzea eta lasaitasunez parte hartzea gelako elkarriketetan.
- Talde lanetan parte-hartzea eta proposamenak egitea.
- Lanerako jarrera egokia azaltzea eta betebeharrak arduraz eta erritmo onean egitea.
- Jakin mina eta ikasteko gogoaz azaltzea.
- Lan dinamika desberdinetan errespetuzko jarrera erakustea.

- Ikastolako oinarrizko bizikidetza-arauak ezagutzea eta betetzea.
- Besteen sentimenduak, iritzia eta nahiak errespetuz entzutea, kontuan hartzea eta onartzea.
- Bere buruarekiko konfiantza erakustea.
- Bere emozioak eta ekintzak autoerregulatzea.
- Lanean zentratzeko gaitasuna erakustea eta era autonomoan jokatzeko.
- Lanak ongi egiten ahalegintzea, zailtasunei aurre egiteko jarrera eta hobetzeko nahia erakustea.
- Gelako adierazpenak arretaz entzutea, eta jarduerak egiteko emandako jarraibideak jarraitzea.

EUSKARA ETA LITERATURA

1.hiruhilekoa

AHOZKOA

- Ahozko azalpen kontestualizatuen esanahi orokorra eta zehatza identifikatzea.
- Euskara ohiko komunikazio eremu eta egoeratan egokitasunez erabiltzea.

IRAKURKETA

- Ahoz gora irakurtzen duenean, intonazio eta abiadura egokia lortzea.
- Lanean erabiltzen diren testu idatziak ulertzea.

IDAZKETA

- Landutako idatz arauak betetzea: hitz banaketa, maiuskulen erabilera eta puntua esaldi bukaeran.
- Azalpen testuak ekoiztea eta beren ezaugarri nagusiak bereiztea.

2.hiruhilekoa

AHOZKOA

- Gelan erabili ohi diren ahozko testuen informazio orokorra ulertzea.
- Egoera komunikatiboari egokitutako ahozko azalpenak egitea.

IRAKURKETA

- Lanean erabiltzen diren testu idatziak ulertzea.

IDAZKETA

- Landutako idatz arau berriak betetzea: bi puntuak eta koma zerrendetan.
- Argibide testua eta komikia ekoiztea.

3.hiruhilekoa

AHOZKOA:

- Genero desberdinetako ahozko testuak ulertzea.
- Euskara ohiko komunikazio eremu eta egoeratan zuzentasunez erabiltzea.

IRAKURKETA:

- Lanean erabiltzen diren testu idatziak ulertzea eta galderei erantzuteko informazio zehatza aurkitzea.
- Testuen irakurketa adierazkorra egitea.

IDAZKETA:

- Deskribapen bat idazterakoan atalak desberdintzea eta testuaren kohesioa zaintzea.
- Idazketaren oinarizko arauak gehienetan erabiltzea: galdera ikurra, harridura ikurra eta hiru puntuak.

GAZTELANIA ETA LITERATURA

1.hiruhilekoa

- Ingurune hurbiletik jasotako ahozko mezuak ulertzea.
- Eguneroko egoeratan bere bizipenak adieraztea.
- Irakurritakoa ulertzen hastea.
- Ahots gora irakurtzen duenean lasai aritzea eta intonazio egokia ematea.
- Hitzak egoki banatzea.

2.hiruhilekoa

- Hainbat jarduera egiteko emandako ahozko aginduen arabera jokatzeko.
- Eguneroko egoeratan bere ideia, iritzi eta jakintzak era ulergarrian adieraztea.
- Irakurritakoa ulertzea neurri handi batean.
- Ahots gora irakurtzen duenean gero eta intonazio hobea eta abiadura egokia lortzea.
- C, Z, K, Q hizkiak erabiltzea.

3.hiruhilekoa

- Gelan erabili ohi diren ahozko testuen informazio orokorra ulertzea.
- Gertaerak, sentimenduak, ideiak... modu ulerkerrean adieraztea.
- Lanean erabiltzen diren testu idatziak ulertzea eta galderei erantzuteko informazio zehatza aurkitzea.
- Testuen irakurketa adierazkorra egitea.
- Deskribapen bat egiteko beharrezko diren adjetiboak erabiltzea.
- CH, GU, G, J eta Y hizkiak gehienetan ongi erabiltzea.

INGELESA

- Eguneroko hizkuntza ulertzea eta egitura sinpleak erabiltzea gelan komunikatzeko.
- Ipuinetako hizkuntza ulertzea eta egiturak erreproduzitzea.
- Landutako abestiak ikastea.
- Landutako idatzizko ipuinak eta testuak ulertzea eta ahoskera egokiz irakurtzea.
- Landutako hiztegia ikastea eta modu egokian idaztea.
- Ahozko eta idatzizko testu laburrak sortzea.
- Aktiboki parte hartzea gelako dinamikan.

MATEMATIKA
1.hiruhilekoa
• Bi eragiketako problemak ebazteko prozedura bereganatzea. • 10.000 arteko zenbakiak irakurtzea eta zifraz idaztea. • Bateko, hamarreko, ehuneko eta milakoen kontzeptuak bereganatzea eta zenbaki hauek deskonposatzea. • Biderketa-taulak buruz ikastea (1etik 5era). • Buruzko kalkulu egokia erabiltzea. (+/-10) • Norbera eta inguruko gauzak espazioan kokatzeko kontzeptu egokia erabiltzea (ezker-eskubi, gertu-urrun). • Eguneroko bizitzako objektuetan eta espazioetan irudi lauak identifikatzea: triangeluak, karratuak, errektangeluak, pentagonoak, hexagonoak eta zirkuluak. • Erloju digitalean goizeko eta arratsaldeko orduak ezagutzea. • Txanponen eta billeteen arteko baliokidetasunak egoki aplikatzea.
2.hiruhilekoa
• Bi eragiketako problemak (batuketa, kenketa, biderketa) ebazteko prozedura bereganatzea. • Datuak, sailkatu eta ordenatu ondoren, hainbat taula eta grafiko osatzea eta interpretatzea. • Zenbaki dezimalekin batuketa eta kenketak egitea. • Bateko, hamarreko, ehuneko, milako eta hamar milakoen kontzeptuak bereganatzea eta zenbaki hauek deskonposatzea. • Irudikapen espazialak deskribatzea eta osatzea oinarritzko geometria nozioak erabilita (aurrera, atzera, eskuinera eta ezkerrera). • Zuzen paraleloak eta ebakitzailak bereiztea. • Erloju analogikoan eta digitalean orduak irakurtzea (eta laurden, laurden gutxi).
3.hiruhilekoa
• Bi eragiketako problemak (batuketa, kenketa, biderketa) ebaztea. • Erabilitako estrategiak eta lortutako ondorioak ahoz adieraztea. • Datuak bilatu, sailkatu eta ordenatu ondoren, hainbat taula eta grafiko osatzea eta interpretatzea. • 100.000 arteko zenbakiak irakurtzea eta zifraz eta letraz idaztea. • 10 arteko taulak buruz ikastea. • Zatiketaren kontzeptua ulertzea. • Objektu ezagunetan oinarritzko gorputz geometrikoak identifikatzea: kuboak, esferak, prismak, piramideak, zilindroak eta konoak. • Gorputz geometrikoak deskribatzea landutako lexikoa erabiliz (ertzak, erpinak eta aurpegiak). • Denborarekin erlazionaturiko kontzeptuak bereganatzea.(urtea, hilabeteak eta urtaroak).

- Erloju analogikoetan eta digitaletan orduak irakurtzea.

INGURUNEAREN EZAGUTZA

1.hiruhilekoa

EGIPTO

- Urak paisaia duen eragina eta gizakiarentzat duen garrantzia azaltzea era gidatuan, eta uraren erabilera desberdinak adieraztea.
- Landutako zibilizazioaren ezaugarri nagusiak ezagutzea eta gaur egungo bizimoduarekin alderatzea.

ZENTZUMENAK

- Zentzumenen organoak eta funtzioak azaltzea euskarri bat erabiliz.
- Higienea, atsedena eta elikadura ohitura osasungarriak identifikatzea eta berenganatzea.

2.hiruhilekoa

UNIBERTSOA

- Eguzki-sistema osatzen duten astro motak bereiztea.
- Planetak eguzkiarekiko hurbiltasuna edo urruntasuna kontuan hartzea, identifikatzea eta ordenatzea, eta irudikapen grafiko batean izendatzea.
- Atmosferak Lurra babesten duela ulertzea, eta kutsadura atmosferikoak duen garrantziaz jabetzea.

ZIENTZILARIAK

- Puntu kardinalak, poloak, ipar-hemisferioa eta hego-hemisferioa identifikatzea.
- Esperimentu bat burutzea eta aurkeztea metodo zientifikoa aplikatuz.
- Urak naturan izaten dituen egoerak identifikatzea eta deskribatzea.
- Landutako gaiari buruzko informazioa biltzea, lantzea eta aurkeztea.

3.hiruhilekoa

EUSKAL HERRIKO EKOSISTEMAK

- Euskal Herriko ekosistema bati buruzko talde lan bat egitea eta haren ezaugarri eta osagai nagusiak bertan adieraztea.
- Paisaia osatzen duten elementu eraldatu nagusiak eta gizakiak egindakoak identifikatzea.

HEZIKETA FISIKOA

- Jolasa oinarri hartuta, oinarrizko trebetasunak lantzea.
- Proposatutako ariketetan saiatzea.
- Landutako baloreak (ikaskideekiko errespetua, elkarlana, joko arauen onarpena, emaitzaren onarpena...) zaintzea.
- Igeriketan, oinarrizko trebetasunak lantzea eta proposatutako ariketetan saiatzea.

MUSIKA
1.hiruhilekoa
• Instrumentuak familiaka sailkatzea. • Notak identifikatzea eta irakurtzea. • Landutako abestien irudi erritmikoak perkusiozko instrumentuekin interpretatzea. • Proposatutako jardueretan gogoz lan egitea.
2.hiruhilekoa
• Landutako dantzekiko interesa adieraztea eta besteekiko errespetua erakustea. • 4 pultsuko erritmo eskemak irakurtzea eta interpretatzea ondorengo figurak erabiliz: zuria, beltza, kortxeak eta isilune beltza eta zuria. • Musika mota desberdinen erritmoak kontutan izanik abestiak modu koordinatuan abestea.
3.hiruhilekoa
• Melodia errazetan goranzko eta beheranzko soinuak indentifikatzea. • Txirulan SOL, LA eta Si notak ondo jotzea. • Irakasgaiarekiko eta gure folklorearekiko errespetua eta interesa adieraztea.

PLASTIKA
1.hiruhilekoa
• Esku trebetasuna garatzeko landu ditugun tekniketan moldatzea. • Egindako lanetan ordena eta garbitasuna balioestea.
2.hiruhilekoa
• Txotxongiloen emanaldiaren prestaketan plastikari dagozkion jarduerak (txotxongiloa, atrezzo...) modu egokian burutzea. • Erabilitako materiala modu egokian erabiltzea eta zaintzea.
3.hiruhilekoa
• Ikasturte bukaerako ekitaldiaren prestaketan plastikari dagozkion jarduerak modu egoki eta txukunean burutzea.

7. ZENBAIT OHAR

Jarraian azalduko zaizkizuen oharrak elkarbizitzarako, eta era berean, ikastolako baloreak eta helburuak lortzeko beharrezkoak dira. Guztiok bete beharreko arauak dira:

A) EUSKARA

Ikastolan eta ikastolako jarduera guztietan euskaraz hitz egingo dugu, eta gure ingurukoek ere euskaraz hitz egin dezaten eskatuko dugu.

B) PUNTUALITASUNA

Sarrera orduetan garaiz iristeari garrantzi handia ematen diogu. Arrazoiak:

- Ikasleek puntual iristen ikasi behar dute.
- Berandu sartzen direnak nabarmendu egiten dira eta ez dira eroso sentitzen.

C) ASISTENTZIA FALTAK:

Aste-egitarauan edo e-mailez behar den bezala arrazoituta idaztea eskatuko zaizue, eta ahal den guztietan aurretik abisatzea.

D) HAMAIKETAKOA

Haur bakoitzak etxetik ekarritako bere hamaiketakoak jaten du atarira jaisten denean.

E) ARROPA

Ezinbestekoa da zuen seme-alaben arropan **IZENA** jartzea. Eguneroko martxan ikaragarri lagunduko liguke.

F) URTEBETETZEAK

Ikasle guztien urtebetetzeak gelan ospatzen ditugu. Urteak betetzen dituen ikasleak bizkotxo eta kandelak ekarri behar ditu. Mesedez eskatzen dizuegu etxeko ospakizunak ikastolatik kanpo antolatzea.

G) AUTOBUS ZERBITZUA

Aldaketaren bat dagoenean irakasleak edo autobusaren arduradunak jakinaren gainean egon beharko du. Autobus geltokian haur baten arduraduna ez badago, haur hori ikastolara bueltan eramango dugu.

H) ATARIKO MATERIALA

Arrazoi pedagogikoei so eginez, atarian (goizeko zaintzan, hamaiketako garaian eta eguerdian) ikasleak jolasean aritzeko materiala ikastolak eskainiko du. Beraz, eskatzen dizuegu, zuen seme-alabek ikastolara jostailurik ez ekartzea (kromoak, zibak, rubik kuboak, panpintxoak...). Jostailuren bat ekarri beharko balute arratsaldeko 16:30etatik aurrera jolasean aritzeko, beraien motxiletan gordeta izan beharko dute ikastola-eguna amaitu arte. Hala ere, 16:30etatik aurrera, atarian ezingo dute baloiarekin jolastu.

I) PATINETEAK, BIZIKLETAK ETA BESTELAKOAK

Ikastola barnean hauen erabilera debekatua dagoenez, behin atea zeharkatuta ikasleak oinez joan beharko dira. Bizikletak eta patineteak sarreraren eskuinaldeko aparkalekuetan utziko dira lotuta.

J) SMARTWATCH-AK, SAKELEKOA ETA BESTELAKO GAILU ELEKTRONIKOAK

Ikasleek ezingo dituzte mugikorak, smartwatch-ak eta baimendu gabeko bestelako gailu elektronikoak ikastola eremuan gainean eraman. Ikastolara ekartzekotan, motxilan gordeta izan beharko dituzte Ikastola eremutik atera arte.

K) IKASLEEN IRTEEREN ANTOLAKETA

Gogorarazi nahi dizuegu LHko ikasleen jarduna arratsaldez **16:30**ean amaitzen dugula. Horregatik, zuen seme alabak ordu horretan jaso behar dituzue.

Atearen irekiera eta itxiera:

- Irekierak: 8:50 (ate nagusia), 12:30 eta 14:25 (ate txikia) eta 16:30 (ate nagusia)
- Itxierak: 9:05 (ate nagusia), 12:40 eta 14:35 (ate txikia) eta 17:15 (ate nagusia)

Ikasleen irteeren baimenak: Seme edo alaba DBHtik aurreragoko senide batek jasotzeko aukera dago baimen eskaeraren formulakia betez gero.

8. OSASUN ARRETA

OSASUN OROKORRA

Aurretik osasun-fitxaren bitartez adierazi zenigutena aplikatuko dugu aurten ere ikasleei botika eman eta dagokien osasun arreta eskaintzeko garaian. Orduz geroztik **aldaketaren bat eman bada** (ikaslearen osasun egoera, har ditzakeen botikak...) lehenbailehen tutoreari adierazi, tutoreak emango dizuen informazio-orria bete eta, behar den kasuetan, medikuaren agiria ekarri beharko duzue. Tutoreak helaraziko dizuen fitxa horretan bi atal nagusi dituzue:

- Lehenengo atala krisi egoera bat sorraraz dezaketen gaixotasunen bat dutenek bete behar dute. Hala denean, ekar ezazue arren medikuaren txostena. Bertan, ikasleak krisiren bat izanez gero ikastolako kideok nola jokatu behar dugun adierazi behar da.
- Bigarrena orokorra da, denek betetzea eskatzen dizueguna. Bertan, gurasoek adierazi behar duzue ikastolari baimena ematen diozuen ala ez ikasleari botika emateko:

- Analgesiko edota antiinflamatorio orokorrak seme-alabari emateko baimena ematen ote duzuen adierazi. **Bai** ala **ez** adieraz ezazue arren.
- Gaixotasun kronikoa duelako beste sendagairik ematea eskatzen duzuenean (bronkodilatadoreak...) botikarekin batera medikuaren txostena ere ekar ezazue, arren, botika emateko jarraibideekin.

Haurren batek bestelako gaitz kutsakorren bat balu tutoreari berehala abisatzea eskatzen dizuegu (Aftak, konjuntibitisak, zorriak, heste-zizareak, gastroenteritisa,...).

Ikasleak elikagaiekin loturiko arazorik duen kasuetan (alergia, intolerantziak...), eta arazo hau Ategorrietako jangelakoentzat berria bada (LH1lekoa delako, orain arte jangelakoa ez zelako edo arazoa berria delako), osasun fitxa betetzeaz gain, jangelako arduradunekin harremanetan jartzea eskatzen dizuegu.

ISTRIPUEN KUDEAKETA

Ikastolak ikasleentzat kontratatutako aseguruia Mapfreren bitartez bideratzen da. Aseguruetxe honek hitzarmena du Donostiako POLIKLINIKA eta QUIRON osasun-zentroekin. Istripu bat Ikastolako eremuan gertatzen denean, bai eskola-orduetan, baita eskolaz kanpoko jardueretan ere, ikasleak bi zentro hauetako batetara (larrialdietara) eramango dituzue. Bertan, Ikastolatik prestatu zaien "istripu partea" erakutsi beharko dute. Istripu parterik ez balego (idazkaritza itxita dagoelako edo istripuaren ondorioak ikastola orduetatik kanpo sumatu direlako), Zurriola Ikastolako ikaslea dela adierazi eta partea hurrengo egunean jasoko dutela esanda, artatuak izango zarete. Hurrengo egunean abisua eman idazkaritzan gertatutakoarekin, parte bidali dezagun.

Norbaitek hitzartutako zentru hauen ordezkariak Osakidetza zerbitzuak erabiltzea erabakiko balu, jakin, behin prozesua bertan abiatuz gero, ondorengo pausoak ere Osakidetza eman beharko direla, beraien prozedurak eta tempusak jarraituz. Kasu honetan, Ikastolako asistentzia-partearekin prozedura berdina jarraitu beharko da, hau da, alde aurretik prestatutakoa eraman edo hurrengo egunean ikastolan abisua eman, parte bidali dezagun.

9. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK

IRTEERAK

Ikasturtean zehar hainbat irteera egin ohi dira urtero, goiz-pasa, egun-pasa edo egun batzuetakoak. Horietako batzuk helburu akademikoekin lotura zuzena dute, beste batzuek, ordea, elkarbizitzarekin edo bestelako zehar konpetentziekin. Aurtengo plangintzaren barruan honako irteera hauek ditugu:

- Zinemaldia
- Tinko
- Urumea ibaia ezagutzera.
- San Telmo Museora bixita.
- Zientzia Museora bixita.
- Uliara irteera

Data gerturatu ahala burutuko ditugun irteeren berri emango dizuegu.

Aurreko ikasturtean martxan jarri genuen moduan, hemedik aurrera zenbait ekintza eta irteeratan Ikastolan Mugi txarteekin ibiliko gara. Ondorioz, irakasleak eskatutako irteera edo ekintza jakin batzuetarako ikasleei Mugi txartela pertsonala ekartzeko eskatuko zaie. Txartela ekartzen ez dutenek, Ikastolako txartel anonimoak erabiltzeko aukera izango dute, eta ondoren egindako bidaiaren kostua errezibo bitartez kobratuko zaizue gurasoei.

Ikasturte bukaerako 3 egunetako irteera ere egingo dugu (maiatzak 20, 21 eta 22). LH3koak Arotz Eneara joango gara.

JARDUERA OSAGARRIAK

Urtero, hainbat ekintza gauzatu ohi ditugu ikasgai jakin batzuetako eduki eta konpetentziak lantzeko, bai eta zeharkako konpetentziak lantzeko ere. Ekintza horietako batzuk ikastolan bertan egiten dira, eta beste batzuk, aldiz, ikastolatik kanpo.

Bestalde ikasturte honetan zehar igerilekura joango gara igeriketa ikastaroa egitera. Irteera hauek garai ezberdinetan egingo ditugu hiru gelek, ordena ondoko hau izango delarik:

- LH3C urriak 3, 10, 17, 24, azaroak 7, 14 eta 21.
- LH3B Azaroak 28, abenduak 5,12, urtarrilak 9, 16, 23, 30.
- LH3A otsailak 6, 13, 20, 27 martxoak 6, 13.

OSPAKIZUNAK

Ikasturtean zehar, Euskal Herriko eta Donostiako kultura ondarearen ezaugarri diren hainbat ospakizun burutzen ditugu. Gure gizartearen kultur-adierazpen hauek ikasleak ezagutzea eta horiekiko jakin-min eta begirunea izatea ikastolaren xedeetako bat da. Hortaz gain, momentu aproposak izaten dira Ikastolako ikasle, irakasle eta familiak elkartzeko eta gure kultura eta izaera auzora zabaltzeko. Horien berri data gerturatu ahala emango dizuegu.

Ospakizun hauek hurrengo datetan egitea aurreikusten dugu:

- Euskararen eguna: abenduaren 3ean
- San Tomas: abenduaren 19an

- Olentzerorekin kantujira: abenduaren 24an
- Danborrada: urtarrilak 19 astelehena
- Kaldereroak: otsailaren 6an
- Korrika txikia: martxoak 27
- Ikastolaren Eguna: maiatzaren 16a

Guraso bileren txosten orokorrean adierazten den bezala, Ikastolako kooperatibista moduan, gurasoek parte hartzeko konpromezua hartu duzue. Urte osoan zehar ekimen asko direnez, maila honi dagokiona Euskararen eguneko txokolatada antolatzea da. Honen inguruko informazio gehiago guraso bileran emango zaizue.

10. ERANSKINAK

A) ORDUTEGIAK

LH 3A- ITSASO IZAGIRRE

LH 3A		AKERBELTZ GELA			ITSASO	
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA		
			INGELESA	INGELESA		
LIBURUTEGIA		GAZTE				
JOLAS GARAIA						
		GAZTE	MATE TXOKO			
IRAKURKETA		INGELESA				
BAZKALTZEKO GARAIA						
MUSIKA	GAZTE	TAILERRAK		HEZIKETA FISIKOA		
			AHOZKOTASUNA	TUTORETZA		

HAURRAK GELAKO ERREFERENTEAREKIN EGONGO DIRA.

LH3B- UXOA IRIGOIEN

LH 3B		AMALUR GELA		UXOA
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
		INGELES		
JOLAS GARAIA				
			MATE TXOKO	AHOZKOTASUNA
IRAKURKETA				
BAZKALTZEKO GARAIA				
INGELES	HEZIKETA FISIKOA	TAILERRAK	TUTORETZA	GAZTE
MUSIKA	INGELES		GAZTE	LIBURUTEGIA

	HAURRAK GELAKO ERREFERENTEAREKIN EGONGO DIRA.
--	---

LH3C- NEKANE ARAMBILET

LH 3C		<u>ZEZENGORRI GELA</u>		NEKANE
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
	INGELESA		MUSIKA	
JOLAS GARAIA				
			MATE TXOKO	
IRAKURKETA	LIBURUTEGIA			
BAZKALTZEKO GARAIA				
AHOZKOTASUNA		TAILERRAK	INGELESA	GAZTE
INGELESA	HEZIKETA FISIKOA		GAZTE	TUTORETZA

	HAURRAK GELAKO ERREFERENTEAREKIN EGONGO DIRA.
--	---

B) JANGELAKO DEKALOGOA

GURE JANGELAKO DEKALOGOA

- 1.** Jangela ez da jatetxe bat. Denon ardura izango da jantokiko zerbitzua eta garbitasuna. Bertako hezitzaileek lan horretan lagunduko gaituzte.
- 2.** Jangelan errespetuzko jarrerak izan beharko ditugu:
 - Zerbitzatzen gaituenari eskerrak eman.
 - Gauzak "mesedez" eskatu.
- 3.** Janaria eta esku zikinak ez datoz bat, ezta? Jantokira sartu aurretik eskuak ongi garbitu.
- 4.** Bazkaldu aurretik denon artean mahaia jarriko dugu.
- 5.** Janaria ez dugu jolasteko erabiliko. Beraz, ez bota ogi zatirik.
- 6.** Matematikak bezala, jaten ere ikasten da! Horretarako elikagai guztiak probatu behar ditugu.
- 7.** Sssss... Denok gustukoa dugu giro lasaiean bazkaltzea. Tonu baxuan hitz egin eta oihurik ez, mesedez.
- 8.** Jangelan presa ez da lagun ona. Beraz, mahaikideek amaitu arte ez gara mahaitik altxako.
- 9.** Bazkaltzen bukatzean hezitzaileen laguntzarekin mahaia jasoko dugu eta mahai ingurua txukun utziko dugu.
- 10.** Gure burua zaintzeaz gain natura ere zaindu beharko dugu ba! Plastikozko ontziak birziklatzera botako ditugu.

Aurretik ipinitakoak betetzeko gai al zara? Hala bada, ongi etorri ikasle!! Prest zaude Ategorrietako jangela erabiltzeko.

Ohar honen gaztelaniazko bertsioa [bertan](#) duzue irakurgai.

La versión en castellano de este documento está disponible [aquí](#).